



GOBERNU BATZARRA

2020.12.29

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Xabier Balerdi Tolosa

Jose M^a Villanueva Telleria

Jarduneko idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko abenduaren hogeita bederatzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko abenduaren 1eko ohiko bilkurako akta onartzea.
2. Hasierako onarpena ematea "15. Bidebieta - Izaskun - Iparragirre - Kondeaneko aldapa (bakoitiak)" hirigintza esparruko "15.2 Zubizarreta" azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.
3. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2020/1962 Dekretua: 2020/52 eta 2020/53 faktura zerrendak.
 - 2020/2025 Dekretua: 2020/54 eta 2020/55 faktura zerrendak.
4. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 17ra (2020/1879-2020/2054).

1. 2020KO ABENDUAREN 1EKO OHIKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko abenduaren 1eko ohiko bilkurako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA “15. BIDEBIETA - IZASKUN - IPARRAGIRRE - KONDEANEKO ALDAPA (BAKOITIAK)” HIRIGINTZA ESPARRUKO “15.2 ZUBIZARRETA” AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI.

AURREKARIAK

2019ko maiatzaren 27an J.T.E. jaunak “15. Bidebieta - IZASKUN - IPARRAGIRRE - KONDEANEKO ALDAPA (BAKOITIAK)” esparruko “15.2 ZUBIZARRETA” azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezia aurkeztu zuen.

Plan bereziarekin batera, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko dokumentu sinplifikatua aurkeztu zen. 2019ko abuztuaren 14an Eusko Jaurlaritzara igorri zen Ingurunet bidez.

Eusko Jaurlaritzak behin baino gehiagotan eskatu du ingurumen-dokumentuan akatsak zuzentzeko. Eusko Jaurlaritzak egindako azken errekerimendua 2020ko urriaren 8koa da, eta Tolosako Udalak, urriaren 9an, akatsak zuzentzeko eskatu zien interesdunei, baina oraindik ez dute zuzenketarik aurkeztu. Epea urtarrilaren 8an bukatzen da.

2020ko uztailaren 21ean, Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartu zuen: hasierako onarpena ez ematea “15.2 Zubizarreta” azpiesparruko hiri antolamenduko Plan Bereziari, hainbat zuzenketa aurkeztu arte.

2020ko urriaren 28an, J. T. E. jaunak “15. Bidebieta - IZASKUN - IPARRAGIRRE - KONDEANEKO ALDAPA (BAKOITIAK)” esparruko “15.2 ZUBIZARRETA” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezi berria aurkeztu zuen.

Ondoren, hainbat zuzenketa eskatzeko bilera egin ondoren, 2020ko abenduaren 21ean, J. T. E. jaunak “15. Bidebieta - IZASKUN - IPARRAGIRRE - KONDEANEKO ALDAPA (BAKOITIAK)” esparruko “15.2 ZUBIZARRETA” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezi berria aurkeztu zuen (2020ko urriko data duena).

2020ko abenduaren 22an, Hirigintzako buruak txostena idatzi zuen, eta zenbait baldintza ezarri zituen behin betiko onespenerako. Era berean, N. A abokatuak txosten juridikoa egin zuen 2020ko abenduaren 22an, hasierako onespeneraren aldekoa, baina baldintzatua.



AZTERKETA TEKNIKOA

Udaleko Hirigintzako buruak txostena egin zuen 2020ko abenduaren 22an. Txostena hasierako onespenera ematearen aldekoa da, zenbait baldintza jarrita.

Behin betiko onespenerako baldintzak honako hauek dira:

- Memoriako 23. orrialdean, zuzendu egin beharko da kalifikazio globalaren taula eta bat etorri beharko du kalifikazio globaleko planoarekin.
- Tokiko beste zuzkiduren azaleraren zati bat eremuan bertan beteko den edo guztiari dagokion diru-sarrera egingo den zehaztu beharko da.
- Memoriako 24. orrialdean, zuzendu egin beharko da kalifikazio xehatuaren taula eta bat etorri beharko du kalifikazio xehatuaren planoarekin eta estandarren kalkularekin. Bestalde, a.20.2 partzelak neurri bera izango du sestrapean eta sestra gainean, bietan jabari pribatukoa izango baita. Hori zuzendu egin beharko da B1 dokumentuko 13. artikuluko taulan ere.
- Hirigintza arauetako B2 dokumentuan honako zuzenketak egin beharko dira:
 - g) 52. orrian etxebizitzaren % 34 tasatua izango dela jasotzen da eta memoriaren arabera guztiak BOE izango dira. Zuzendu egin beharko da.
 - h) III.2. puntua zuzendu edo kendu egin beharko da.
 - i) III.4. puntuan jaso beharko da ordenazio xehatua Plan Berezian zehaztutakoa izango dela eta ez HAPOn zehaztutakoa.
 - j) IV.1.d atalean, garaje eta erabilera osagarrietako azalera zuzendu egin beharko dira.
- Beharrezkoa izango da aldeko txosten sektorial hauek jasotzea:
 - 1.-GFAko Errepide Sailaren baimena.
 - 2.- Ur Agentziaren txostena.
 - 3.- Ekonomia eta Enpresa Ministerioko Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusien txostena.
 - 4.- Zortasun aeronautikoen aldeko txostena.



Bestelako baldintzak:

- 2020ko urriaren 9an, interesdunari errekerimendua bidali zitzaien Eusko Jaurlaritzak eskatutakoa aurkezteko eskatuz, baina oraindik ez du aurkeztu. Epea urtarrilaren 8an amaitzen dela kontuan hartuta, eskatutakoa lehenbailehen aurkeztu beharko da Udaletxean.
- Dokumentua jendaurrean jarri behar denez, Udaletxean HAPBren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean, 10 eguneko epean.
- Azpiegiturei dagokienez, udal ingeniariak txostena egin beharko du Planaren behin betiko onespenerako.
- Jabetza, kudeaketa, hitzarmen urbanistiko eta errealojoekin lotutako gaiak UJP eta Birpartzelazio Proiektuan aztertuko dira, dagokion txosten juridikoan.

AZTERKETA JURIDIKOA

N. A. (Araudi SLP) abokatuaren txostena hasierako onspenaren aldekoa da, zenbait baldintzarekin. Txostenaren esanetan, aipagarriak dira honako alderdi edo aspektu hauek:

- **Ingurumen ebaluazio estrategikoa.**

46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak, 31. artikuluan ahalbidetzen du ingurumen txosten estrategikoaren aurretik egitea plan bereziaren hasierako onspena. **Kasu horretan, behin betiko onspena baldintzatu beharko da txosten hori jasota izatera eta planak barneratu beharko ditu txosten honetatik datozen aldaketak, horrela izango balitz behintzat.**

- **2008an Tolosako Udalaren eta eremu horretako lur jabeen artean izenpetutako hitzarmen urbanistikoak betetzea.**

Hitzarmen horietan oinarrituta, urbanizaezineko gisa sailkatutako lurzoruak eskritura publikoan laga beharko zaizkio Tolosako Udalari. **Alderdi hori Urbanizatzeko Jarduketa Programan jaso beharko da.**



Kontuan izan behar da, bestalde, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 21.1.j artikuluan ezarritakoaren arabera, akordio hori onartzea Alkatzaren eskumena dela, baina Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzarrari eskualdatu zitzaioa 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hasierako onspena ematea “15.2 Zubizarreta” Hiri Antolamenduko Plan Bereziari eta azpiesparru honi dagokion ingurumen dokumentu estrategikoari (ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuarena).

Honako baldintza hauek bete beharko dira behin betiko onspenerako:

- Ingurumen txosten estrategikoan ezarritako zehaztapenak jaso beharko dira.
- Memoriako 23. orrialdean, zuzendu egin beharko da kalifikazio globalaren taula eta bat etorri beharko du kalifikazio globaleko planoarekin.
- Tokiko beste zuzkiduren azaleraren zati bat eremuan bertan beteko den edo guztiari dagokion diru-sarrera egingo den zehaztu beharko da.
- Memoriako 24. orrialdean, zuzendu egin beharko da kalifikazio xehatuaren taula eta bat etorri beharko du kalifikazio xehatuaren planoarekin eta estandarren kalkuluarekin. Bestalde, a.20.2 partzelak neurri bera izango du sestrapean eta sestra gainean, bietan jabari pribatukoa baita. Hori zuzendu egin beharko da B1 dokumentuko 13. artikuluko taulan ere.
- Hirigintza arauetako B2 dokumentuan honako zuzenketak egin beharko dira:
- 52. orrian, etxebizitzaren % 34 tasatua izango dela jasotzen da, eta, memoriaren arabera, guztiak BOE izango dira. Zuzendu egin beharko da.
- III.2. puntua zuzendu edo kendu egin beharko da.



- III.4. puntuan, jaso beharko da ordenazio xehatua Plan Berezia zehaztutakoa izango dela eta ez HAPOn zehaztutakoa.
- IV.1.d atalean, zuzendu egin beharko dira garaje eta erabilera osagarrietako azalerak.
- 2020ko urriaren 9an eskatutako dokumentazioa aurkeztea, Eusko Jaurlaritzak eskatutakoa betetzeko.
- Udaletxean HAPBren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean, 10 eguneko epean.

Bestetik, honakoak ere kontuan hartu beharko dira:

- 2008ko uztailaren 21ean eta azaroaren 12an Tolosako Udalaren eta lur jabeen artean izenpetutako hitzarmenen arabera dohainik laga behar diren lurak eta hori egiteko modua Urbanizatzeko Jarduketa Programan zehaztu beharko dira.
- Azpiegiturei dagokienez, udal ingeniariak txostena egin beharko du Planaren behin betiko onespenerako.

BIGARRENA-. Espedientea hogeit hamar egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkari batean argitaratuko diren ediktuen bidez; epea kontatzen hasiko da azken argitalpenetik. Era berean, iragarkia Udaletxeko iragarki-taulan eta (<http://www.tolosa.eus>) udal webgunean argitaratuko da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau eta Plan Bereziaren dokumentua honako administrazio eta erakunde hauei bidaltzea, txostena egin dezaten:

- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Ministerioko Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusia.
- Ekonomia eta Enpresa Ministerioko Telekomunikazio eta Informazio Teknologien Zuzendaritza Nagusia.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza Sailari eta interesdunei.

Jarduneko kontuhartzaileak adierazi du Udal ingeniariaren eta txosten sektorialak beharrezkoak direla plan berezia hasieraz onartu aurretik.



3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- **2020/1962 DEKRETUA: 2020/52 ETA 2020/53 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2020/1962 dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/1962

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

52. zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa

53. zenbakia duena, 110.881,48 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta faktura horiek ordaintzeko agintzea:

52. zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa

53. zenbakia duena, 110.881,48 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko abenduaren 1ean

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez



Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- **2020/2025 DEKRETUA: 2020/54 ETA 2020/55 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2020/2025 dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/2025

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

54. zenbakia duena, 163.155,76 eurokoa

55. zenbakia duena, 4.361,69 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta faktura horiek ordaintzeko agintzea:

54. zenbakia duena, 163.155,76 eurokoa

55. zenbakia duena, 4.361,69 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko abenduaren 14an
Zinegotzi delegatua
Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria
Begoña Garmendia Vazquez



Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 17RA (2020/1879-2020/2054).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 17ra bitartean (2020/1879-2020/2054) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1879	2020	20/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	51. FAKTUREN-ZERRENDA ONARTU ETA FAKTURA BAKOITZAREN ORDAINKETA AGINTZEA
1880	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 46-4.EZKERRA ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEKO BAIMENA
1881	2020	20/11/2020	ALKATETZA	SOLDADU KALEA 5 BEHEKO HARATEGIKO TITULARRARI BIDE PUBLIKOAN JARRITAKO FRUTA ERAKUSLEKUAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEKO UDALARI BAIMENA ESKATZEKO AGINTZEA
1882	2020	20/11/2020	UDALTZAINGOA	HERRI BABES ZIBILEKO BI BOLONDRES BERRI ONARTZEA
1883	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	LARRAMENDI KALEA 2-3C ETXEBIZITZAREN BAIMENA UKATZEA
1884	2020	20/11/2020	AZOKAK	B.T.I.JAUNAREN ESKAERA EZ ONARTZEA ZERKAUSIAN POSTUA JARTZEKO
1885	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	LARRAMENDI 10 A-B-C-D ERAIKINEKO LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA
1886	2020	20/11/2020	AZOKAK	TOLOSA CFREN ESKAERA ONARTZEA
1887	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	TXARA-AMAROTZ ZUNDAKETAK ETA KATAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
1888	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 38KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1889	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 17KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1890	2020	20/11/2020	HIRIGINTZA	BIDEBIETA 15 ERAIKINEKO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1891	2020	20/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	2020KOES0012 - OHZ ERREKARGUA EZ APLIKATU
1892	2020	20/11/2020	KONTUHARTZAILTZA	2020KOES0013 - OHZ ERREKARGUA EZ APLIKATU

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1893	2020	20/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KOES0016 - OHZ ERREKARGUA - ERREKURTSOA GAITZESTEA
1894	2020	23/11/2020	PERTSONALA	M.M.I.-EN ERANTZUNA
1895	2020	23/11/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0026 ESPEDIENTEAN BERRAZTERTZE ERREKURTSOA EZEZTEA.
1896	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	BEDAIO AUZOKO JAZKUE-BEKOA BASERRIAREN TEILATUA BERRITZEKO LIZENTZIA EMATEA
1897	2020	23/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	ASTEROKO AZOKAKO TASEN ITZULKETA ETA HOBARIAK COVID19 DELA ETA
1898	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	UZTURRE KALEA 10 ERAIKINARI LEHEN ERABILERAKO BAIMENA EMATEA
1899	2020	23/11/2020	PERTSONALA	BIRKOKAPEN FISIKOEN ANTOLAKUNTZA
1900	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	BERMEA ITZULTZEKO ESKAERA.VOITH-GOROSTIDI R.7 EREMUAREN HIRITARTZE LANAK.
1901	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	LETXUGA KALEA 9KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1902	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	KORREO 60KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1903	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 24KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1904	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	ENPERADORE 31KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1905	2020	23/11/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 20KO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1906	2020	24/11/2020	HIRIGINTZA	URKIZU 7B, ERAIKINEKO TEILAK ORDEZKATZEA ETA TERRAZA IRAGAZGAIZTEKO LIZENTZIA EMATEA
1907	2020	24/11/2020	KULTURA	AZKEN MUGA ELKARTEARI 2019KO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ITZUL DEZAN EBAZTEA
1908	2020	24/11/2020	PERTSONALA	J.M.A.L. (PEOI BERRIA)
1909	2020	24/11/2020	HIRIGINTZA	URKIZU AUZOA 7B ERAIKINEKO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1910	2020	24/11/2020	HIRIGINTZA	KONTSUMO ENERGETIKOAREN JARRAIPENA ERRAZTEKO PLATAFORMA INFORMATIKOAREN EZARPENA ETA AHOLKULARITZA ENERGETIKOA
1911	2020	24/11/2020	PERTSONALA	E.U.G. (BIRJAPEN ERREKURTSOA)



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1912	2020	24/11/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 30 BEHEKO "ANTIGUO" TABERNAREN JARDUERA IRAUNGITZEA
1913	2020	25/11/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0028 KALTE ERREKLAMAZIOA ERANTZUNKIZUNA EZ ONARTZEA
1914	2020	25/11/2020	KONTUHARTZAILITZA	2020KO ABENDUA. AGARAMUNDU KALEA, 7 (5.056,58 EURO), KONDEANEKO ALDAPA, 11 (2.144,31 EURO) ETA EUSKAL HERRIA, 1B (3.695,00 EURO) ETXEBIZITZETAKO ERABILERA LAGAPENA ETA KOMUNITATE GASTUEN LIKIDAZIOAK ONARTZEA.
1915	2020	25/11/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0023 KALTE ERREKLAMAZIOAN ATZERA EGIN DUELA DEKLARATZEA
1916	2020	25/11/2020	KONTUHARTZAILITZA	BALIO ANITZEKO ETXEBIZITZA SOZIALEN 2020KO AZAROA EPEALDIARI DAGOKION ERROLDA ONARTZEA, ZENBATEKOA 1117,25 € IZANIK.
1917	2020	25/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	2020/2021 HOTZAREN PROGRAMA ONARTZEA
1918	2020	25/11/2020	HIRIGINTZA	ARRAMELEKO BIRIBILGUNEA EGOKITZEKO LANAK
1919	2020	25/11/2020	PERTSONALA	C.P. E.(BILDU-REN IZENEAN) ESKAERAREN ERANTZUNA
1920	2020	25/11/2020	AZOKAK	TOLOSAKO BABARRUNAREN KOFRADIAREKIN HITZARMENA SINATZEA
1921	2020	25/11/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDALAREN ZEIN ERRETEGIBEL UDAL SOZIALATEAREN ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN UDAL INBENTARIOA, LURZORUAREN UDAL ONDAREAREN INBENTARIOA ETA BIDE PUBLIKOEN ETA BERDEGUNEEN (PARKEAK ETA LORATEGIAK) INBENTARIOAK BERRIKUSI ETA GAURKOTZEKO KONTRATUA
1922	2020	25/11/2020	IDAZKARITZA	ERABILERA ANITZEKO BI AGERTOKI MUGIKORREN ORNIDURA KONTRATUA
1923	2020	25/11/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDALAREN IBILGAILUETARAKO AUTOMOBILGINTZAKO ERREGAIEN HORNIDURA-KONTRATUA
1924	2020	25/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	PEÑASCAL S. KOOPERATIVA ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1925	2020	25/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0027 - MUSIKA ESKOLA ITZULKETAK - AKATS ZUZENKETA
1926	2020	25/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KOES0015 - OHZ ERREKARGUA - ESKAERA GAITZETSI
1927	2020	25/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KOES0014 - OHZ ERREKARGUA - ESKAERA GAITZETSI
1928	2020	26/11/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	ORDAINKETAK EGITEA GLLETATIK.
1929	2020	26/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020TMIZ0004 J.R.T.M.REN IBILGAILUAREN BEHIN BETIKO BAJA
1930	2020	26/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJENGATIK ZIRKULAZIO ZERGAREN DIRU ITZULKETAK ONARTZEA. ESP. 2020TMIZ0002
1931	2020	26/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	MUÑOIA FUNDAZIOARI BERAZUBIKO INSTALAZIOAK OKUPATZEGATIKO KANONAREN LIKIDAZIOA ONARTU ETA ORDAINTZEA
1932	2020	26/11/2020	HIRIGINTZA	TRIANGULO KAFETEGIARI BURUZ ERREKERIMENDUA
1933	2020	26/11/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 2 SOLAIRUARTEAN KOKATURIKO "BRIDGE" HIZKUNTZA ESKOLAREN JARDUERA TITULARITATE ALDAKETA
1934	2020	27/11/2020	HIRIGINTZA	UTE ARRAMELEREN BERMEA ITZULTZEA VOITH-GOROSTIDI R.7 EREMUAREN HIRITARTZE LANAK.
1935	2020	27/11/2020	PERTSONALA	AZAROKO NOMINAREN ORDAINKETA ONARTZEA
1936	2020	27/11/2020	DIRU-BILKETA	2294 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
1937	2020	27/11/2020	DIRU-BILKETA	27517 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
1938	2020	27/11/2020	DIRU-BILKETA	9887 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.
1939	2020	27/11/2020	DIRU-BILKETA	23610 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAREN EBAZPENA.

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1940	2020	27/11/2020	PERTSONALA	D.R. UDALTZAINA AGENTE LEHENAREN LANAK BETETZEAGATIK ORDAINKETA
1941	2020	27/11/2020	HEZKUNTZA	F.E.LRI ESKAERA EZ ONARTZEA
1942	2020	27/11/2020	PARTAIDETZA	I.V. UDALTZAINA AGENTE LEHENAREN LANAK BETETZEAGATIK ORDAINKETA
1943	2020	27/11/2020	ALKATETZA	I.J. UDALTZAINA AGENTE LEHENAREN LANAK BETETZEAGATIK ORDAINKETA
1944	2020	27/11/2020	PERTSONALA	C.J. UDALTZAINA AGENTE LEHENAREN LANAK BETETZEAGATIK ORDAINKETA
1945	2020	27/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	15/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA
1946	2020	27/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0020 - IBILGAILUA - OKERREKO SARRERA ITZULTZEA
1947	2020	27/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020TMIZ0003 - IBILGAILUAREN BEHIN BETIKO BAJA - DIRU ITZULKETA
1948	2020	27/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0028 - OKERREKO SARRERAK ITZULTZEA
1949	2020	27/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0029 - AKATS ZUZENKETA ETA DIFERENTZIA ITZULTZEA
1950	2020	30/11/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0016 EZ ONARTZEA ERANTZUNKIZUNA, EGIAZTATU EZKERO GUREAK BERDEAREN ERANTZUNKIZUNA
1951	2020	30/11/2020	IDAZKARITZA	KALTEAK ERREKLAMATZEA 2020IUDK0005 ESPEDIENTEAN
1952	2020	30/11/2020	PERTSONALA	J.D.A. (ESZEDENTZIA ESKAERA)
1953	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0030 - MUSIKA ESKOLA - KOMPENTSAZIOA - DIRU ITZULKETA
1954	2020	30/11/2020	IDAZKARITZA	GIPUZKOA PLAZAKO 81 ZBK. DUEN GARAJEA ESKUALDATZEA. C.Z.Y.-M.E.L.O.
1955	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0031 - MUSIKA ESKOLA - KOMPENTSAZIOA
1956	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0032 - MUSIKA ESKOLA - DIRU ITZULKETA
1957	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0033 - MUSIKA ESKOLA - KOMPENTSAZIOA

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1958	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0034 - MUSIKA ESKOLA - DIRU ITZULKETA
1959	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0035 - MUSIKA ESKOLA - KONPENTSAZIOA
1960	2020	30/11/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0036 - MUSIKA ESKOLA - KONPENTSAZIOA
1961	2020	01/12/2020	HIRIGINTZA	MENDI-BIZIKLETA ZIRKUITUA EZARTZEKO BAIMEN ESKAERA
1962	2020	01/12/2020	KONTUHARTZAILETZA	52 ETA 53. FAKTUREN-ZERRENDAK ONARTU ETA FAKTURA BAKOITZAREN ORDAINKETA AGINTZEA
1963	2020	01/12/2020	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO 46 ZBK. DUEN GARAJEA ESKUALDATZEKO PREZIOA ZEHAZTEA. A.N.G.
1964	2020	01/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	GLL. A-17. ABENDUKO ALOKAIRUAK
1965	2020	01/12/2020	HIRIGINTZA	IBARRALDEKO HAUR PARKEAREN PRESAZKO KONPONKETAK
1966	2020	01/12/2020	UDALTZAINGOA	1995 ETA 2002 URTEAK BITARTEKO TRAFIKOKO ESPEDIENTEEN BAJAK
1967	2020	01/12/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0009
1968	2020	01/12/2020	KONTUHARTZAILETZA	JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA KITAPENAREN (2020-1 ERANSKINAK: 001, 002 ETA 003) IGORPENA ONARTZEA.
1969	2020	01/12/2020	KONTUHARTZAILETZA	OGASUN HIGIEZINEN ZERGA KITAPENAREN (2020-1 ERANSKINAK: 004, 005 ETA 006) IGORPENA ONARTZEA.
1970	2020	01/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	ABENDUKO UDAL DIRULAGUNTZAK
1971	2020	02/12/2020	ALKATETZA	J.J.A ETA J.J.B.RI ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ONARTU.
1972	2020	02/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	B.T.T.RI ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ONARTU.
1973	2020	02/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	J.E.A. ETA F.O.S.-I ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ONARTU.
1974	2020	02/12/2020	HIRIGINTZA	TOVAR GOENAGA SLREN AURREKONTUA ONARTZEA. BEOTIBAR PILOTALEKUKO UR KONTAGAILUEN BIRKOKAPENA

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1975	2020	02/12/2020	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 36, 2. ETA 3. SOLAIRUETAKO ETXEBIZITZEN BERRITZEA ETA BAKAR BATEAN DUPLEX MODUAN EGITEKO LEHEN ERABILERA BAIMENA
1976	2020	02/12/2020	HIRIGINTZA	ALDABA ETA URKIZUN MENDI IBILBIDE BERRIAK SEINALIZATU ETA HOMOLOGATZEA
1977	2020	02/12/2020	INFORMATIKA	TELELANERAKO EKIPAMENDUEN ONLINE EROSKETA BAIMENDU
1978	2020	02/12/2020	HIRIGINTZA	SEGURTASUNA ETA OSASUNA KOORDINATZEKO ZERBITZUA LASKOAIN KALEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBRETAN
1979	2020	02/12/2020		
1980	2020	02/12/2020	HIRIGINTZA	IRAUNGITZE LIZENTZIA ESPEDIENTEARI HASTEAN JERALDE KALEA 4 BEHEA
1981	2020	02/12/2020	HIRIGINTZA	"BIKUTZ TABERNA" ZEGOEN LOLAKAREN DESJABETZEA (FELIPE GORRITI PLAZA 1) - AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA ONTZAT EMATEA ETA EXEKUZIO SUBSIDIARIOA 10 EGUNEZ GELDIARAZTEA
1982	2020	02/12/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KJES0001 - JEZ SALBUESPENA - DIRU ITZULKETA
1983	2020	03/12/2020	PERTSONALA	N.O.G. (GIZARTE LANGILE BERRIA)
1984	2020	03/12/2020	IDAZKARITZA	AMAITUTZAT EMATEN DELA TOLOSAKO SAN JOAN KALEKO APARTAMENTU BALIOANIZTUNEN ERAIKINEKO HIRUGARREN SOLAIRUKO AP4 APARTAMENTU BALIOANIZTUNAREKIKO EMANDAKO BIZTANTZE ESKUBIDEA.
1985	2020	03/12/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0037 - AZOKAK COVID - ZOR MURRIZKETA
1986	2020	03/12/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020ZZSI0038 - AZOKAK COVID - DIRU ITZULKETA
1987	2020	04/12/2020	AZOKAK	UDABERRI DANTZA TALDEARI BAIMENA EMATEA POSTUA JARTZEKO
1988	2020	04/12/2020	HIRIGINTZA	POTOTXO GUNEAN, KOMUN AURREFABRIKATUA JARRI AHAL IZATEKO, BURUTU BEHARREKO OBREN KONTRATAZIOA ESLEITZEA.
1989	2020	04/12/2020	HIRIGINTZA	ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 15 ERAIKINEKO EIT-ARI DAGOKION ERABILERA ETA MANTENTZE-PLANA ONARTU ETA EIT ESPEDIENTEA AMAITUTZAT EMATEA

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1990	2020	04/12/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0015 KALTE ERREKLAMAZIOAREN HASIERA
1991	2020	04/12/2020	PERTSONALA	E.I.E. (KONTUHARTZAILE TEKNIKARIA)
1992	2020	04/12/2020	HIRIGINTZA	GUDARI KALEA 3-6.EZKERRA ETXEBIZITZAKO FATXADAKO DANBOR-TABIKEAN ISOLAMENDUA INJEKTATZEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA
1993	2020	04/12/2020	PERTSONALA	E.L.J.M. (PEOI BERRIA)
1994	2020	04/12/2020	PERTSONALA	J.F.S.B.(ATRIBUCIÓN FUNCIONES)
1995	2020	04/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020ZZSI0018 - OKERREKO SARRERA ITZULTZEA
1996	2020	04/12/2020	HIRIGINTZA	TOLOSAKO UDALA ETA IURRE 1-13KO JABEKIDEEN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.
1997	2020	04/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	CASER RESIDENCIAL - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: URRIKO FAKTURA ONARTU.
1998	2020	04/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020ZZSI0017 - OKERREKO SARRERA ITZULTZEA
1999	2020	04/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020TZKE0011 - ERREKURTSOA EZ ONARTZEA
2000	2020	09/12/2020	KULTURA	ANDRE MARIA PARROKIARI 2020KO DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN ORDAINKETA ONARTZEA
2001	2020	09/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	GLL KONTURA FAKTURAK ORDAINTZEA
2002	2020	09/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	A.L.B.RI ABENDUKO UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA
2003	2020	09/12/2020	AZOKAK	OSTALARITZAKO BONOEN KANPAINA - LIKIDAZIOA ONARTZEA A.B.RI
2004	2020	09/12/2020	KONTUHARTZAILETA	JABARI PUBLIKOA ERABILTZEAGATIK TASA KITAPENAREN (2020-1 EPEKO 001 ERANSKINA ETA 2020-81 EPEKO 500 ERANSKINA) IGORPENA ONARTZEA. GUZTIRA 2020-1-001 ERANSKINA: 17 AGIRI ETA 8280,81 EURO; 2020-81-500 ERANSKINA AGIRI 1 ETA 68,05.
2005	2020	09/12/2020	KONTUHARTZAILETA	KOTXEEN BEHIN BETIKO BAJENGATIK ZIRKULAZIO ZERGAREN DIRU ITZULKETAK. ESP. 2020TMIZ0005.
2006	2020	09/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020KO ZERGABILKETAKO HAINBAT AGIRIEN ANULAZIOA.
2007	2020	09/12/2020	HIRIGINTZA	SAMANIEGO KALEA 2 BEHEAN -ITAIE- BIDE PUBLIKOAN ERAKUSLEKUAK ETA BESTE ELEMENTU LAGUNGARRIAK JARTZEKO BAIMENA
2008	2020	09/12/2020	HIRIGINTZA	ORIA KALEA 5-2.ESKUBI ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA
2009	2020	10/12/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDALERRIAN NERABEENTZAKO (TOPAGUNEA) ZERBITZU-KONTRATUAREN ESLEIPENA. ESPEDIENTEA: 2020SABI0008



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2010	2020	10/12/2020	KULTURA	2019KO KULTURAKO LEHIA BIDEZKO DIRULAGUNTZEN ESPEDIENTEAN KUP AHOTS TALDEARI ETA TOIKO ELKARTEARI DAGOKIENA EBAZTEA
2011	2020	10/12/2020	PERTSONALA	J.E.R. (ESZEDENTZIA ESKAERA)
2012	2020	10/12/2020	IDAZKARITZA	1814/2020 DEKRETUA DEUSESTATZEA ETA IBAIONDO SEKO JABEKIDEEN KUOTAK ONARTZEA
2013	2020	10/12/2020	UDALTZAINGOA	TRAFIKO ISUNAREN DIRU ITZULKETA
2014	2020	10/12/2020	HIRIGINTZA	ESTABLEZIMENDUEN PLAKA GEHINEEZKO EDUKIERA EDO AFOROA AZALERA PUBLIKORI DAGOENA
2015	2020	10/12/2020	AZOKAK	KUTXA FINKOAREN ESKAERA
2016	2020	11/12/2020	HIRIGINTZA	ALLIRI PLAZAKO LUMINARIAK ALDATZEA
2017	2020	11/12/2020	HIRIGINTZA	POTOTXO GUNEAN, KOMUN AURREFABRIKATUA AUKERATZEA HORNIKETAKO KONTRATU TXIKI MODUAN.
2018	2020	11/12/2020	HIRIGINTZA	GABONETAKO ARGIAK KOKATZEKO ELEKTRIKARIAREN KONTRATAZIOA
2019	2020	11/12/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO UDALEKO 2021EKO ARAUTEGI PLANA ONARTZEA
2020	2020	11/12/2020	HIRIGINTZA	HASIERAKO ONESPENA EMATEA TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 6.1 SAN KOSME ETA SAN DAMIAN AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN ALDAKETARI
2021	2020	11/12/2020	KULTURA	ANTZERKI TAILERREAN EZ ONARTZEAGATIK KULTUR TAILERRETAKO BI ERREZIBO BERTAN BEHERA UZTEA
2022	2020	11/12/2020	HIRIGINTZA	ALDABA-TXIKI AUZOA 1 ERAIKINEKO EIT TXOSTENARI DAGOKION OKERRAK ZUZENTZEKO ZIURTAGIRIAREN AZTERKETAREN EMAITZA
2023	2020	11/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	EUSKAL FONDOARI AURTENGO BAZKIDETZA-KUOTA ORDAINDU.
2024	2020	14/12/2020	PERTSONALA	AZAROKO GIZARTE SEGURANTZAKO LIKIDAZIOEN ORDAINKETA
2025	2020	14/12/2020	KONTUHARTZAILETA	54 ETA 55. FAKTUREN-ZERRENDAK ONARTU ETA FAKTURA BAKOITZAREN ORDAINKETA AGINTZEA
2026	2020	14/12/2020	PERTSONALA	B.M.R. (INFORMATIKA SAILAN LANGILE BERRIA)
2027	2020	14/12/2020	IDAZKARITZA	EH PLAZAKO 407 APARTAMENTUAREN BAJA ESKAERA ONARTZEA

ESKU24d568e6-db8b-4344-bf71-c75088c391fc



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2028	2020	14/12/2020	HIRIGINTZA	DIRULAGUNTZA ONARPENA BIZIBIZIKI SL AKTIBATU JARDUNALDIK 2020
2029	2020	14/12/2020	IDAZKARITZA	EH PLAZAKO 403 APARTAMENTUAREN ERABILERA KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA
2030	2020	14/12/2020	IDAZKARITZA	ETXEBIZITZA TASATUAA ESKURATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRENA JAKINARAZTEA
2031	2020	14/12/2020	GOBERNANTZA	GARDENTASUN ETA PARTAIDETZA ARAUTEGIA ESLEITZEA
2032	2020	14/12/2020	IDAZKARITZA	UZTURRE 23-2C ETXEBIZITZA TASATUAREN ETA BERE ERANSKINEN SALMENTARAKO GEHIENENKO PREZIOA JAKINARAZTEA
2033	2020	14/12/2020	IDAZKARITZA	MONTETXE 1A_PBC ETXEBIZITZA TASATUAREN BESTERENTZEA ONARTZEA
2034	2020	14/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020KOES0018 - OHZ ERREKARGUA ITZULI
2035	2020	14/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020ZZSI0016 - OKERREKO SARRERA ITZULTZEA
2036	2020	14/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020TZKE0016 - GAINBALIOA ERREKURTSOA ONARTZEA
2037	2020	15/12/2020	HIRIGINTZA	EUSKAL HERRIA PLAZA 3KO EIT-AN AGINDUTAKO ESKU-HARTZEAK BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
2038	2020	15/12/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0011 ESPEDIENTEKO KALTE ERREKLAMAZIOA ONARTZEA
2039	2020	15/12/2020	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA 7 ERAIKINEKO FATXADAK ERREBISATZEKO EGIKARITZE AGINDUA
2040	2020	16/12/2020	IDAZKARITZA	ETXEBIZITZA TASATUA EROSTEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA JAKINARAZTEA
2041	2020	16/12/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0012 KALTE ERREKLAMAZIOA ONARTZEA
2042	2020	16/12/2020	KONTUHARTZAILETA	2020KZZG0050 ZERGEN ORDAINKETA URTEBETEZ ATZERATZEA
2043	2020	16/12/2020	KONTUHARTZAILETA	GUDARI KALEA, 13 - 1 ESK ETXEBIZITZA-N EGINDAKO OBRENGATIK ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGA BEHIN BETIKO LIKIDATZEA 1.190,16 EUROKO KOPURUAREKIN ETA 20,24 EUROKO DIFERENTZIA ITZULTZEA.
2044	2020	16/12/2020	HIRIGINTZA	SAMANIEGO 2 6. PISUKO EZKERREKO ETXEBIZITZA KONPONTZEKO BAIMENA UKATZEA
2045	2020	16/12/2020	HIRIGINTZA	SAMANIEGO IKASTETXEKO HH ERAIKINEKO PATIOA KONPONTZEKO LANEN KONTRATUA ESLEITZEA.
2046	2020	16/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	K.B ETA K.N-I BALIOANITZEKO ETXEBIZITZAREN KONTRATUA LUZATZEA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2047	2020	16/12/2020	HIRIGINTZA	AROTZTEGIETA 16-6.ESKUINA ETXEBIZITZAN EZKUTUAN EGITEN ARI DIREN OBRAK GELDITZEKO AGINTZEA ETA OBRAK LEGEZTATZEKO ERREKERITZEA
2048	2020	16/12/2020	KONTUHARTZAILAZIA	2020TZKE0018 - GAINBALIOA - AKATS ZUZENKETA ETA DIRU ITZULKETA
2049	2020	16/12/2020	KONTUHARTZAILAZIA	2020TZKE0020 - GAINBALIOA - ERREKURTSOA ONARTZEA
2050	2020	17/12/2020	IDAZKARITZA	LASKORAIN KALEKO OBRA HASIERAREN ATZERAPENA
2051	2020	17/12/2020	PERTSONALA	ABENDUKO APARTEKO PAGAREN ORDAINKETA ONARTU
2052	2020	17/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.FI LARRAMENDI 7B, 2D BALIOANITZEKO ETXEBIZITZA LAGATZEA
2053	2020	17/12/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	GLL KONTURA FAKTURAK ORDAITZEA
2054	2020	17/12/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0026 ESPEDIENTEAN EPEA LUZATZEA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

JARDUNEKO IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020IGBA0039-2020-12-29 berretsitako akta/2020-12-29 berretsitako akta